

IRAGARKIAK

Beste iragarki ofizial batzuk

EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILA

6161

IRAGARKIA, 2021eko azaroaren 16koa, Industria Administrazioaren Gipuzkoako lurralde-ordez-kariarena, zeinaren bidez jendaurrean jartzen baita, lehian beste eskabide batzuk aurkezteko aukera emanez, Azkoitia, Urretxu eta Zumarraga udalerrietan (Gipuzkoa) dagoen Buruzai parke eolikorako aurretiazko administrazio-baimenaren eskaera.

Euskal Autonomia Erkidegoan parke eolikoen bidez energia eolikitik energia elektrikoa ekoizteko instalazioak baimentzeko prozedura arautzen duen maiatzaren 28ko 115/2002 Dekretuak 4. artikuluan aurreikusitako ondorioetarako, Buruzai parke eolikorako aurretiaz aurkeztutako administrazio-baimenaren eskaera iragartzen da:

- Kokalekua: Buruzai.
- Eskatzailea: Green Capital Development 65 SLU.
- Eragindako udalerriak: Azkoitia, Urretxu eta Zumarraga (Gipuzkoa).
- Aerosorgailuen kopurua: 4.
- Instalaturako potentzia gordina: 18 MW.
- Eragindako azaleraren poligonalaren koordenatu geografikoak:

| Poligonalak | UTM x | UTM y |
|-------------|--------|---------|
| A | 553809 | 4775212 |
| B | 555755 | 4776416 |
| C | 558896 | 4772794 |
| D | 558432 | 4772439 |
| E | 555640 | 4775663 |
| F | 554114 | 4774719 |

- Aerosorgailuen koordenatu geografikoak:

| Aerosorgailua | UTM x | UTM y |
|---------------|--------|---------|
| 1 | 554257 | 4775119 |
| 2 | 554868 | 4775562 |
| 3 | 557559 | 4773902 |
| 4 | 558182 | 477300 |

2021eko abenduaren 10a, ostirala

Hori guztia argitara ematen da, hogeit eguneko epean, iragarki hau 115/2002 Dekretuaren 4. artikuluan aipatzen diren aldizkarietan azken aldiz argitaratu zen egunetik zenbatzen hasita, parke eoliko hori ezarri eta ustiatzeko interesa duten pertsona fisiko edo juridikoek lehian eskabideak aurkeztu ahal izan ditzaten, dekretu horren 3. artikuluan xedatutakoaren arabera, Industria Administrazioaren Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritzan (Donostia, Easo kalea 10, 20006 PK) edo izapidetze elektronikoko plataformaren bidez.

Donostia, 2021eko azaroaren 16a.

Industria Administrazioaren Gipuzkoako lurralde-ordezkaria,
AGUSTIN AROSTEGI ARTETXE.